

‘Desagertuta’ telesaila, Primeran-rena, maiatzaren 19an aurrestreinatuko da Victoria Eugenia Antzokian, Kultura Departamentuaren Crossover jaialdiaren saio berezi batean

- o *Aurrestreinaldia herritarrentzat irekia izango da, eta gonbidapenak astelehenetik aurrera, maiatzak 12, eskuratu ahal izango dira www.crossoverseriesfestival.com webgunean.*
- o *EITBk parte hartutako gazteentzako euskal fikzioa, euskaraz eta gaztelaniaz aldi berean filmatuta, hilaren 19ko 21:00etatik aurrera ikusi ahal izango da PRIMERAN plataforman.*

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak abian jarritako eta Kultur Factory agentziarekin elkarlanean antolatutako ‘Crossover. Kultura de series’ festibalak, EITBko Primeran plataformarekin lankidetzan, ‘Desagertuta’ euskal thrillerraren aurrestreinaldia programatu du. Saio berezi horretan euskaraz eta gaztelaniaz aldi berean grabatua izan den euskal fikzioaren lehen bi atalak proiektatuko dira. Ekitaldia maiatzaren 19an, astelehena, izango da, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian, 19:00etan, nahiz eta ateak 18:15ean irekiko diren.

Goizane Álvarez Kultura diputatuak gogora ekarri du telesaila Crossover jaialdian aurkeztu zela, **Xabi Zabaleta** (sortzailea), **Unai Iparragirre** (ETBko zuzendaria) eta **Ane Rot** (aktore protagonista) hizlari izan ziren solasaldian. Halaber, esan duenez, “Kultura departamentuko Crossover festibalaren eta Primeran plataformaren arteko lankidetzak erakusten du euskal erakundeen eta komunikabide publikoen arteko sinergiak nola bultzatzen duen gure ikus-entzunezko industria, oro har, eta euskarazko ekoizpena, bereziki.” Halako aliantzek sortzaileak, hedapen-plataformak eta herritarrak konektatzen dituen ekosistema indartzea ahalbidetzen dutela ere gaineratu du.

“Desagertuta” da EITBk 2023an abian jarritako deialdiaren lehenengo fruitua, publiko gazte eta euskarazko bati zuzendutako fikzio seriatuko proiektuak identifikatzeko. Helburua euskal ikus-entzunezkoen sektorea bultzatzen jarraitzea da. Konpromiso horri esker, euskarazko fikzio asko argitaratuko dira aurren eta hurrengo urteetan.

PRIMERAN telesailaren jatorrizko serie berria Gipuzkoako bederatzi herritan grabatu da (Donostia, Pasaia, Oiartzun, Hondarribia, Urnieta, Hernani, Usurbil, Irun eta Zarautzen. Zortzi

ataletan zehar, telesailak Jon izeneko gazte baten desagertze misteriotsua kontatzen du; lagunekin mendian gaua igaro ondoren, desagertu egiten da, eta desagertu aurretik sare sozialetan argitaratutako bideo kezkagarri bat da utzi duen aztarna bakarra. Bideoa birala bihurtzen da, eta mota ezberdinetako espekulazioak sortzen ditu. Telesailan **Jon Lukas** aktore gazteak Jon pertsonaia antzeztzen du, eta beste aktore gazte talentudun batzuk ere parte hartzen dute, hala nola **Ane Rot, Ainhoa Larrañaga, Asier Rikarte, Ainhoa Azpitarte, Unai Arana** eta **Julen Taboada**. Talde helduan ere prestigio handiko aktore ezagunak daude, esate baterako, **Itziar Atienza** (Entrevías), **Gorka Otxoa** (Machos Alfa) eta **Jon Olivares** (Patria).

Aurrestreinaldia Victoria Eugenia Antzokian

Aurrestreinaldian, maiatzaren 19an Victoria Eugenia Antzokian izango dena, telesailaren sortzailea, zuzendaria ekoizleak eta aktore nagusiak izango dira. Lehen bi atalak proiektatu aurretik, telesailaren aurkezpena egingo dute.

Ekitaldia herritarrentzat irekita egongo da, eta gonbidapenak www.crossoverseriesfestival.com webgunean eskuratu ahal izango dira, astelehenetik, maiatzak 12, aurrera. Halaber, aurrestreinaldira politikarien ordezkari desberdinak bertaratuko dira, baita EITB eta Primeraneko zuzendaritzako kideak eta katearen eta plataformaren aurpegi ezagunak ere.

Donostian, 2025eko maiatzak 9